

JAUTARKOLEZ: AZTARREN BILA

Erreterria, 1996-VI-20

Elixabete Perez Gaztelu

Luis Jauregi Etxenagusia (bataio-agirian, Luis Ramón —eta ez José Luis— Jáuregui Echenausia), Jautarkol apaiz erreterriarraz aztarren bila hasi nintzeanean, beldurtu samar hasi nintzen, hasi ere. Egia esan, ez nuen uste lantxo bat taxutzeko adina gai aurkituko nuenik. Ez da, beharrik, horrela gertatu (1). Miazten ari nintzela, arian-arian, lan batek besteren batera ninderaman: aldizkari eta egunkari zaharretan eta berriagoetan barreiu mordoxka bat osatzeko beste pilatu arte. Bai Jautarkolen bai Jautarkolen gaineko iritzi-iruzkinek alde zurririk gabe pentsatu baino meta polit eta aberatsagoa eskuera zidaten. Bigarrenei helduko diet bereziki; hots, Jautarkolen aztarrenak bilatzeko, bestek Erreterria-koaz zer idatzi duten hartuko dut azterbarrutian.

Bildu ahal izan dudana gaia —alegia, Jautarkol nolazpait mintzagai duen lan-sorta— hiru multzo nagusitan antolatuta dut, lanen izaeraren arabera: batetik Jauregiaren argitaralaren aurkezpen-kritikak; bigarrenik, hilondokoak eta omenaldi modukoak; eta hirugarrenik, literaturaren historiak, entziklopediak eta bestelako ikerlanak.

Banan-banan azalduko ditut, denbora-hurrenkerari helduz, uste baitut Jautarkolen “hirugarren bizitza” behar bezala neurtzeko aldien joana noraezean begi aurrean eduki behar dela.

1. ARGITARALANEN AURKEZPEN-KRITIKAK

Nola aurkeztu ziren eta nolako harrera izan zuten Jautarkolen lanek bere garaian?

Lekukorik aspaldikoena 1923koa dugu. Madariaga fraileak *Aranzazu* aldizkarian *Egizko edertasuna* ipuin luzearen berri eman zuen. Ipuin hau, jakina den bezala, Euskaltzaindiaren sariaren irabaztuna izan zen. Liburuan bertan paratutako “ikurrirtza” darama paperera berri-emaileak: “Soin-edeftasuna, udabefiko lorea lez, igaftu oi-da: gogo-edeftasunak bakaftik beti dirau”. Eta “liburutxo txiki, txukun eta atsegintzat” daukan honen zeregina eta sailkalkua emateaz gain (denborapasakoa, trenean... irakurtzeko modukoa), bestelakorik ere alboratzen dio: euskal irakurleak zaletzeko bide egokia delakoan dago. Hona, beraz, Jautarkol ipuingileari garaian aitortutako balio bat.

Hurrengo urtekoa da (1924) *Ipuiak* bilduma. Damaso Intza hitzaurregileak hizkuntzaren alderdia azpimarkatzen du batik bat:

(1) Jautarkolekin alde edo moldez ikuskizuna dutenak, mendeurrena dela-eta aurtien kalean direnak albo batera utzita: 80 inguru. Ik. bibliografia.

Or dezu, ba, euskalduna, gure euskal itufiak ematen duten urik gafbienetakoa. Euskera gafbi, baño efaza. Euskal esanera berarizkoa ta efitafa; baño irudimen bizi ta sutuak bizi az bete. (Intza, 1923: 6).

Hogei eta bederatzi urte geroago (1953), Ibinagabeitiak *Ipuiak* itxuraberituaz iruzkintxo bat argitara eman zuen (2). “Euskeraren ispillu gardenena” da Jautarkolen idaztanka. Ez du bestelako iritzirik ematen, laudorioetatik at.

Biozkadak lanik entzutetsuenaz, berriz, gai ugariago dago. Orain arte lan honez esan direnak laburbiltzen saiatuko naiz (3). Hasteko, argitaraldien arabera harrerak bereizi beharko lirakeelakoan nago. 1929 eta 1975 urteen arteko aldea, gerra tartean dela, ez baita inondik ere muzin egitekoa.

Lehenengo argitaraldiari helduko diot, beraz. Nik aurkitutakoaren arabera, *Renteria* Errenteriako udalak plazaratzen zuen urtekarian, *Zeruko Argian* eta *Euzkerea* Bilboko aldizkarian eman zuten liburuaren berria (4).

Jose de Olasok *Renteria* 1929ko urtekarian galeradak ikusi dituela-eta, urte horretako abuztuan kalean izango omen den liburuaren berri ematen du. Egiten duen iruzkinetik bi jakingarri azpimarkatuko nituzke. Batetik, Karmelo Etxegarairen iritzia aldatzen du: bildumako olerki batzuk euskaraz inoiz idatzi diren onenak direla eta, bestetik, berriz, Jautarkolek liburu honen bitartez euskal letratan batere ohikoena ez dena erdietsi duela, alegia, salgai jarri aurretik ere bostehun ale salduak izatea.

Gainerantzean, olerkiei sentiberatasuna, sotiltasuna, musika dariela dio; belarri-gozagarritzat dauzka.

*Zeruko Argi*ko izenik gabeko iruzkinean, aldizkariaren irakurleentzat eza-guna den Jautarkolen (liburuan bilduriko olerki batzuk, aldizkari honetan, hain zuzen ere, eman baitzituen argitara), hitzaurrearen eta olerki-bildumaren beraren deskripzio laburra egiten du (azal eta mami, “margazkien” kontu ere ematen baitu: “Begietatik sartzen den liburu da”, dio). Baina, honez gain, Jautarkolek liburu hau argitara eman baino lehen ere zuen itzala neurtu ahal izateko (“Jauregi’ren izena oso ondo ikusia dago gizon jakintsuen artean”), orduko lekukoak daramatza paperera: Angelo Jauregi Aita C. D.-k hitzaldi batean olerkariaren lehenengo mailan jarri omen zuen; Eladio Espartza jaunak Iruñean

(2) “*Ipuiak* (Jautarkol)”, *Euzko-gogoa*, 1954, 126. or.

Itxuraberritua diot, lehen argitaralditik bigarren honetara aldeak daudelako: 1924koan, “Urka-Mendi”, “Erramon gudaria” eta “Erein maitasunez” bildu zituen. Bigarreanean, berriz, azken hau kendu (G. Mujikaren itzulpena zelako, hitzaurrean airtzen duenez) eta “Andre Joxepantoni” sartu zuen.

Besterik ere badio 1953ko hitzaurrean: “Nere iru lantxo auk atsegin ba’zaizkitzu, berriro ere, beste auen antzeko batzuekin etorri natzakizuke”. Ez dugu ipuin argitaratu gehiagoren arrastorik.

(3) Jakina, ale honetako Juan Mari Lekuonaren azterketa ere erantsi beharko litzateke.

(4) Beste biren berri ere badut: Lekuona zaharrak E. Arantzadi “Kizkitzak” *Euzkadi* egunkarian kaleratutako ongi etorri beroa aipatzen du (Lekuona, 1975 (1987: 345)); orobat S. Onaindiak (1954: 979) *Euskal Esnalea*, (1930: 38). Zoritxarrez, ezin izan ditut eskuratu.

1928an egin beste mintzaldi batean ere, beste horrenbeste; orobat Aita Egia Ruiz Jesusen Lagundikoak “De literatura regional: Euskeria” 1929ko *Razón y Fe* aldizkarian argitara emandako (eta beheraxeago ekarriko dugun) artikuluan.

Baina berri-emate honetan *Biozkadaki* bestelako eginkizuna ere ikusten diote: “Ona gure neskatxo ta mutiltxoai buruz crakusteko olerki egokiak eskura jartzen dizkigun liburua”.

Bilbokoan, berriz, Jose Altunak, “Amilgain” izengoitiaren atzean, ohiko gorespenen ondoren akats bat, “akatz andija” (bere hitzetan) harrapatzen du: “Jauregi’tar Luis” izenpetu duela lana; ez duela erabili, alegia, lehen zerabilen “benetako euskal izena”, Koldobika (5). Horixe da kritikaren alde “kritiko” bakarra.

Aurkezpenen katearekin bukatzeko, *Zeruko Argiaren* zuzendaria zen D. Intzak liburuan bertan paratua ekarri behar da.

Kaputxinoak olerki-bilduma hau beste testuinguru zabalago batean kokatzen du. Alegia, aurkezten ari den liburuaren barrenei begiratuaz bat, garaiko eztabaida edo ikusmolde desberdinen arteko aldean berri eman eta bere aukera egiten du. Hona atzean suma daitekeen eztabaidagaita: nondik jo behar ote du euskal olerkigintzak? Izan ere, badirudi olerki landu samarrera pasa orduko euskal “jatortasunaren” zerak zokoratzen dituztela euskal poetek, hezkuntza erdaraz jaso ez ezik, auzo-hizkuntzen gorabeherak besterik ikasi ez dituztelako. Bertsolaritza eta olerkigintza, herri-moldeak eta molde ikasi-landuak dira aurkez aurk paratuak. Intzaren erantzuna honakoa da: olerkariak ez dio, batzuek uste izan zuten ez bezala, bertsolaritzari bizkarra eman behar; areago, bi iturritatik edan behar du; batetik herriak sortutako eta paperetan nahiz ahoz aho gordetako bertsoak eta jakin behar ditu (bertsoak, kopia zaharrak... herri-lirika deituko genukeena), euskal estetikaz jabe dadin. Hor bilatu behar du olerkari ikasiak kanpoko literaturan baino areago bere etorria. Baina hori ere ez du aski. Euskara ere (joskera aipatzen du) errotik jakin behar du. Honezaz jabetzeko, herriarekin hitz egin behar du, herriak esanei erreparatu behar die eta gogoan itsatsi. Bi alderdiok: bertso zahar eta berrien oihartzuna eta ahozko moldeena ederki baino ederkiago uztartu omen ditu Jautarkolek. Badirudi, honenbestez, Jautarkol bilakatzen duela Intzak euskal olerkigintzaren gidari eta bide-erakusle.

(5) “Akatz bat, ofatiño, ta guretzako beñik-bein akatz andija, aspaldijon uaftuten dautsogu olerkari mamintsu ta polit oneri. Len, ezetariko ardura-bafik, «Jauregi’taf Koldobika» ixenbetuten ebanak, ¿zer dala-ta orain «Jauregi’taf Luis» ixenbetu? Gure euzkel-ixen bijotzekuok, argitara atara ta euzkeldun gustijetan auñian ipinteko ofenbeste atsekabe, ofenbeste min, ofenbeste joran eta ardura eragin euskubezan ixen laztanok, ¿zegatik gure aldetik jaurti, euren ordez efdel-ixenik af-tuteko? ¿Tamala ixango litzake, ainbeste ixerdiz irabiziriko bidia, bat-batez gure nayaz galdu biaf ixatia! ¿Beti aufera ta aufera egin-biañian, atzerakadarik egin? ¿Ez orixe!”. “Amilgain” (1929: 191).

Biozkadaken kritiketara pasaz gero, berriz, hiru izen dira besteen gaintik aipatu beharrak: Esteban Urkiaga “Lauaxeta”, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, eta, batuta edo aginte-makila eraman ohi zuen Jose Ariztimuño “Aitzol”.

Bizkaitarrak 1929an bi artikulu eman zituen argitara Jautarkolen liburu atera berriaz (6). Liburu edertzat dauka. Poesia honek ederki ispilatzen omen ditu sorlekuaren bazter lainoz inguratuak; poesiari darion tristura parajeei darian bera omen da: “Nunca el alma vasca pudo manifestarse en tan vaga y láctea transparencia de tristeza”. Tristura honek erabateko perfekzioa iritsi nahi eta lurreko gauzek aseko ez dutelakoan omen du sorburua. Edertasunarekin bat egin eta arimaren emozioa behar bezala ezin adierazi izateak sortarazten dion negarretik jaioa da.

Literatura-lana olerkariak bizitzaz duen ikuspegiaren ondorioa bada, Jautarkolek “breviario lírico” honi ematen dion malenkolia-ukituak bizia aski triste ikusten duela ondorioztatzea darama Lauaxeta: “Desconozco qué sentido pueda tener la vida para el señor Jáuregui, pero presumo que debe de ser muy triste para el que vive soñando en el cielo”. Zeruko loriari begira, bigarren bizitzaren edertasunaren zain bizi da poeta, gora nahia, nonbait, traba gertatzen zaio hemengoaz gozatzeko. Honexegatik dio Jautarkolen poesia erlijioaren uni-bertsokoa dela, ezin bazterrerara daitekeela alderdi hau, hortik baitatorkio inspirazioa, argia.

Bestalde, Jautarkolen poesiari darion musika noraezean gogoan hartu beharra omen da. Musika omen da nagusi olerkiotan. Eta honexetan dator Lauaxetak bezteko daukan alderdia, geroxeago Orixek ere ahotan hartuko duena: poesian, musikan bezala, melodia eta erritmoa bereizi behar dira. Melodian egoki ibiliagatik, erritmoan ez omen du asmatu Jautarkolek (7):

Contra los fueros de mi conciencia pecaría si no tildara el uso y el abuso rítmico de nuestro poeta. Sus versos machacan al oído en el martilleo del zortziko en sus diversas manifestaciones. Mi gusto poético es tan inquieto y amigo de deleites, que no puedo saborear largo tiempo una poesía de composición basada en el zortziko, donde exigen al oído tan dura prueba. (Lauaxeta, 1929a).

Alegia, Lauaxetak ez du zortzikoa gaizki ikusten bertsoak kantatzeko, baina gogait eragiten dio, ezin eraman dezake, olerki “goragoetan” erritmo hori erabiltzea. Pena handia hartzen du horretan asmatu ez duelako, Jautarkol “hizkuntzaren eta poesia-teknikaren” maisuztat baitauka. Horregatik, bere ustez, benetako euskal neurria asmatzea eginkizun dago.

(6) “Divagaciones. Biozkadak”, *Euzkadi*, Bilbo, 1929-11-08; “Divagaciones. Biozkadak”, *Euzkadi*, Bilbo, 1929-11-16.

(7) Hitzaldian aditu genuenaren arabera, Juan Mari Lekuonaren azterketa xeheak, haatik, herri-moldeen, eta zehazki bertso-neurrien erabilera urria erakutsi du. Ikus ale honetan bertan.

Badu beste meriturik Jautarkolen olerkigintzak. Eginez erakutsi du ezi-nezkoa zirudien zerbait egitea badagoela: gogo-adimenaren emozio korapilatuak “gure hizkuntza zaharrea” adieraz daitezkeela.

Se nos asegura que la complicación de las emociones neuróticas, los éxtasis dolorosos del amor, están fuera del alcance de las lenguas primitivas. En el día que corre, no se puede afirmar la incapacidad del euskera para manifestar tales estados psicológicos. En las poesías del señor Jaúregui, como en las estrofas de otros jóvenes poetas que abren audaces sus alas, se adivinan los gemidos de la ilusión tronchada en flor, el pesimismo de las civilizaciones sensuales, el hastío de la vida. (Lauaxeta, 1929a).

Ez dauka Lauaxetak Jautarkol erromantiko erabatekotzat (8), honen ziritzinak badituen arren.

¿Resabios de romanticismo?, me objetará alguno. No lo dudo, pero en el romanticismo palpita un hondo sentido de humanidad. El autor de *Biozkadak* comulga con ellos en lo que tiene de nostálgico y vago, pero difiere en la forma ingenua y clásica de su expresión. (Lauaxeta, 1929a).

Ezin du halakotzat jo subjektibismotik, oinazearen gorazarretik ihes egiten duelako; Jautarkoli darizkion orekak, atsedetak, garbitasunak... erromantikoen eta bere artean hesia jartzen dute. Bada besterik, gainera, erromantikoekin parez pare jartzera daramana: Jautarkolen adierazpena jatorra omen da, urteek zarpildu gabea. Azken ezaugarri hau, txoil da ardurakoa; euskararen beraren erraietatik, euskal senetik sortua baita. Jautarkolek euskaraz esanak estreina-kotasunez jantziak daude, hizkuntza honetan sekula esan gabeak esaten asmatu baitu. Bere alde du euskara aukeratua izana, gainerantzeko hizkuntza “landuak” aski marruskatuak baitaude.

Jautarkolen hizkeraz beraz ere badu esatekorik olerkari bizkaitarrak: herri-hizkeraren eragina ikusten du; ez dela hizperri edo neologismozalea; maileguei ez diela ez ate ez maratilarik ixten, zentzu onez (“con buena gracia”) Lauaxetaren ustez; hitz batean esateko, Jautarkolen hizkerak gogobetetzen duela esan daiteke: “Para renovar, remozar y engrandecer la lengua debemos de enriquecer el vocabulario con nuevas palabras, sin arrinconar las que hoy en día usa el pueblo”.

Eraginak ere hartzen ditu ahotan: Lamartine bai erritmoaren aldetik (“ritmo vaporoso”), bai poesia “goitar, garbia” egin nahi izateagatik (9); Francisco de Iturribarria liriko gorena (Eguía Ruizek bere lanean aipatzen duen bera) (10)

(8) Honengatik ez nator bat Iztuetak Lauaxetaren artikulutik ateratzen duen lehen ezaugarriarekin:

“Hala ere, Jautarkolen poesia ezaugarritzen duten elementu batzu [sic] atera daitezke [Lauaxetaren artikulutik]. Sentimentalismoa, erromantizismoa da lehen elementua”. (Iztueta, 1991: 665).

(9) “Como la poesía de Lamartine, el aleteo de sus confidencias semeja una bandada de palomas temerosas de manchar su inmaculada blancura. Ese aleteo sutil es connatural a la poesía esencialmente musical de Jautarkol”. (Lauaxeta, 1929a).

(10) Lauaxetaren lan hau 1929ko azarokoa da; Eguía Ruizena, urte bereko ekainekoa.

omen dakarkio gogora Jautarkolen sentimendu-koloreen munduak, biak apaiz izateak mugatu omen ditu edertasuna ulertzeko moduan, biontzat edertasuna “Jainkoaren edertasunaren isla”, “Edertasunik benetakoen eta gorenaren promesa” omen da. Bestalde, erlijioaren barrutitik alde egiten duenean batez ere, zenbait erdal autoreren eskua ikusten uste du Lauaxetak Jautarkolen olerki batzuen atzean: Dacarrete-ren “Díme”, “Zergatik?” en, Campoamor-en “humorada londinense” “Maitasun-indarra”n; Baudelaire-rena, Heredia-rena, Heine-rena... Baina hau guztia ez omen da kopia hutsa; “bere ukitua” ematen dio eta ez da galduan ateratzen.

Lauaxetak artikulu hau bestetarako ere baliatzen du, arestian Intzaz esan dugun bezalaxe, puri-purian zegoen auzi baten gaineko iritzia emateko: euskal olerkian zein bide ikusten dituen eta zein bideetatik jo beharko litzatekeen adierazteko, hain zuzen ere. Ba omen dago iparraldekoen ildoak (Elizanburu, Zaldubi, Oxobi) poesia bizia, umoretsua, frantses estiloaren eraginpekoa; bestetik, gaztelauena: “verbosidad abundante y oscura” ezaugarri duena; hirugarrenik, herri-lirika hautatu dutenek baserriarren giro-gauzetarako bakarrik erabiltzen omen dute, eta hau ez zaio Lauaxetari egokia iruditzen, olerkariak ez omen du zertan izan nahi eta ez herriaren, aberriaren, lehenaren ahotsa. Horregatik uste du giro berrien arabera norberak aukeratu behar duela nondik jo. Jautarkolek, antza, asmatu du, bere izpiritu kizkurak baserri-giroko sotiltasuna eta hiri larien egoneza lotu dituelako.

Azkenik abisu ematen dio ez dadila hizkuntzaren gaineko liskarretan sar (s eta z ren artekoa, esate baterako) eta bere bokazio estetikoari euts diezaiola.

Handik gutira —hilabete eta erdira— Orixek hartuko du hitza Bilboko aldizkari berean (11).

Abegi beroa egiten dio Orixek Jautarkolen lanari. Lanaren zoko guztiak ederki miratu dituela aitortzen du; ez omen du inoren lanik hau bezain sakon azterkatu. Oso goian jartzen du errenteriarraren lana; areago, norbaitek (Lauaxetak?) egin kritika ere (“siempre tañe la cuerda tristona y lamentosa”) hankaz gora botatzen du: berrogeita hamaika olerkietan bi besterik ez omen dira lamentazio gisakoak (12); lau erdiparekotzat dauzka (“Lotsagabea”, “Bai erri gaxoa!”, “Malentxu” eta “Eutsi erriari!”), baina zortzi goi-goian jartzekoak omen dira, edozein hizkuntzaren antologiatan egoteko modukoak (“Amonatxoa eskean”, “Bizitz menditarra”, “Itsasaldean”, “Umezurtza”, “Artzai neska”,

(11) “Nuestros poetas. Suspiros del corazón (1)”, *Euzkadi*, 1930-01-01; “La métrica de «Biozkadak»”, *Euzkadi*, 1930-01-03.

(12) “Solo dos composiciones —entre cincuenta y una— nos han hecho la impresión de un tono lamentoso. Examínese la titulada «Aralar», que teniendo elementos de primer orden en su construcción, resulta en conjunto de segundo orden, por la eterna preocupación de la lengua moribunda: preocupación concebida incluso con vulgaridad en alguno que otro pasaje, y expresada con términos que parecen pasar de lo justo, vicio que se opone a lo que es una de las virtudes más salientes en el autor: la adecuación entre el sentimiento y la expresión”. (Orixe, 1930a).

“Atozkit Jesus”, “Nere lagun zar bateri”, “Bertso gaxoak”). Oro har, Jautarkolekin gertatu omen zaio bestela gertatzen zaion ez bezala; alegia, olerkiak bildutakoan, olerkaria irabazian atera dela, banan-banan irakurtzetik baino iritzi hobea atera duela bildumatik.

Jautarkol omen da ordu arte irakurri dituen olerkarietan onena, baina goren-gorenera iristeko besterik falta omen zaio: Zaldubiren bezalako euskal gi-harra.

Halaz guztiz, Orixeren lehen artikulua muina ez da hemen bilatu behar. Kritikaren parterik handiena Jautarkol egokitzailerearen gainekoa da. Jauregik handik eta hemendik hartu omen du eta bere gisa moldatu, eta honi Orixek ez deritzo gaizki. Hauek izan omen ditu sorrerurri: Campoamor, Lope de Vega, Ovidio, Jorge Manrique, Frai Luis de León, Verdaguer, Elizanburu...

Orixek ere —Lauaxetak bezala— aholku bat ematen dio lehen artikulua buruan:

Falta el plan de la arquitectura clásica, el “operis suma”, pues un pensamiento bello, aislado, es como una flor, y el poema lo entiendo yo como un ramillete bien entrelazado como un tablar en el jardín del libro. Esta poquita cosa, un rasgo, una idea suelta, es de espíritus propios de nuestra época. Aconsejaremos a Jáuregui que temple su alma en la recia poesía clásica y estudie el verso vasco en autores como el modelo que le hemos indicado [Zaldubi]. Probablemente, ¡oh, desidia editorial nuestra!, no lo conocerá. (Orixe, 1930a).

Kontua da, hortaz, Orixek ez duela bere klasikozaletasuna Jauregiarenean ikusten: nor bere zoroak darabil.

Bigarren artikuluan metrika-kontuez dihardu Orixek. Olerkien neurkera xehetzen du Orixek zehatz-mehatz. Atzematen duen akatsa (Lauaxetak bezalaxe, baina horren gogor jipoitu gabe) kanturako bai, baina olerkietarako egokia ez den zortzikoaren erabilera da. Gainerantzean, bete-betea asmatu du Jautarkolek neurri oparoaz eta egokiaz baliatuz: “instructivo aun en cuanto a la métrica del verso” dio.

Hizkuntza-akatsak ere aurkitzen ditu Orixek, asko omen dira baina arinak eta konponerrazak. Hona aipatzen dituenak: *ta* kausazko “koloregabea” erabiltzea bere euskalkikoa duen *baiten* ordez; *inoren* ordez *norbait* darabil; “Bizitz menditarra” dio “Bizitza menditarra” behar zuen lekuan, “elurra ari dan artean” “ari dun” esan beharrean, “ez du ajola” “ez dio ajola” zuzenaren ordez; *bere* posesiboa gehiegitan darabil eta gehienetan oker... baina txikikeriok guztiok ez omen dira deus. Ba omen dira gramatikaren legeak ederki gordetzen dituzten lanak baina ez hizkuntzaren ez literaturaren aurrerabideari ezer ekarri ez diotenak. Honek, berriz, literatura gramatikaren aurretik jarri du bien zori-nerako.

Honela bukatzen du Orixek bere iritzia:

En resumen: el libro que hemos juzgado, formará época en las letras vascas. Eliminadas media docena, a lo sumo, de poesías, y corregidas las leves in-correcciones, será un libro áureo de enseñanza para los muchos aficionados y de gloria para la lengua vasca. (Orixe, 1930b).

Orixek bukatutzat ematen zuen, itxura guztien arabera, Jautarkolen lanaren gainekoa, baina azken artikulua argitara eman eta bederatzi egunen bueltan, Donostiako *El Pueblo Vascon* Aitzolek “Nuestros poetas” artikulua argitara eman zuen (13).

Euskal Herritik urruti zegoen Aitzolek Jautarkolen lana goratzen du bainarik gabe: Jauregiren lirismo eta izpirituzaletasun dotorea... Honengan ikusten du euskal literaturaren geroa. Harritzen du nolatan horren oihartzun ttikia izan duen lan bikain honek (Orixeren kritika besterik ez du aipatzen). Orixeren kritika ontzat ematen du gauza batean izan ezik: ez dator bat Jauregi egokitzailen imitatzailetzat jotzean, ez du berak halakorik ikusten. Honez gain, ez du uste Orixek jarritako ereduak egokia denik; beharbada hizkuntzaren erabileran bai, baina poesia lirikoaren sorkuntzan jantziagoa iruditzen zaio Jauregi Zaldubi baino.

Orixek “La imitación en Jáuregui. Respondiendo” (14) plazaratuko du Aitzolen artikulua honek hartaratuta.

Ez omen du Aitzolek ulertu imitatzea edo egokitzea Orixek eman nahi izan dion zentzuan. Imitatzeko moduak omen daude: doinuak, izpirituan besteren oihartzuna ekar omen daiteke gogora, bertsoz bertso, hitzez hitz halakorik egin gabe. Bestelakoa ere ba omen da, esate baterako Virgiliok Homero eta Teokritorekin egina: orpoz orpo jarraikiriko itzulpena, baina bere gisa atonduta nortasun bereziz jantzia munduratzeko duena. Jauregirengan ez omen du halakorik aurkitu.

Heziketan autore onen lanetan blai egin eta haien eraginari aterik ez ixtea zentzu onaren seinalea besterik ez omen da (Arrese Beitiak hori egin izan balu!, dio Orixek). Ez du Orixek Jautarkolen berezkotasunik ukatzen, modu bateko berezkotasuna bederen. Jauregirekin gertatu berbera gertatu omen zaio Dante eta Miltonekin.

Euskal barrutian plagioa gertatzea nekeza, are ezina omen da, ez baitzaio etxeokari etekinik atera. Itzulpena, berriz, probetxuzkoa iruditzen zaio. Kalkoa bera ere (imitatzearen mailarik apalena) baliagarria gerta omen daiteke literaturaren esparrua zabaldu bitartean. Bai jakintzetan, bai literaturan, giza aurrerabidearen edozein arlotan, gustora onartuko omen litzuzke kalkoak, plagioak eta imitatzeak, litekeen onena ez bada ere. Jauregiren lana, aitzitik, kalkoa, itzulpena edo imitatzea baino gehiago omen da. Ez dio Orixek, ordea, bere begietan Jauregirena zer den.

(13) “Nuestros poetas”, *El Pueblo Vasco*, Donostia, 1930-01-12.

(14) *Euzkadi*, 1930-01-21.

Baina Orixek erantzun hau bestetarako ere baliatu nahi du. Aitzolen eta garaiko kritikaren kontra, nonbait, kritikaren eta kritikagileen eginkizunaz hitz bi eransten ditu; hagitx hitz interesgarriak, nire ustez, Orixek garaian zuen itzalla goan hartzen badugu:

Frío llama él [Aitzolek] a mi juicio, y me complazco en que así se reconozca. Nuestros literatos necesitan, sí, alientos: pero una crítica demasiado férvidamente elogiosa les pudiera perjudicar. Ello va antes que nadie contra el mismo crítico, que cuando tenga que hablar de otros no tendrá ya copia en su almacén de adjetivos. Y ésta es precisa para la orientación de nuestra literatura. Es muy cómodo callar para no indisponerse con nadie; decir dos generalidades aplicables a todo el que escribe en prosa o en verso; hablar únicamente, a veces machaconamente, de las incorrecciones gramaticales. A esto último se reducen, por desgracia, las críticas entre nosotros. Arrostrar las críticas de la crítica hecha con lealtad, no es tan halagüeño: pero no debe ser parte para arredrar al que con ello preste, al menos en deseo, un servicio al idioma. (Orix, 1930c) (15).

Hauek dira nik eskueratu ahal izan ditudan lehen argitaraldiaren gaineko kritikak. Zilegi da galdetzea ea kritikatuak zer nolako jarrera hartu zuen iritzi hauen aurrean. Beste idazleen lanek nahiz euskal literaturari buruzko iritzia plazaratu bazituen ere (16), guk dakigula ez zuen txintik atera 1932ko urriaren lehena arte. “Euskaltzaleak” taldeak Tolosan antolaturiko olerki-lehiaketaren ondorioz kaleraturiko bilduma hizpidean hartu arte, alegia.

Kontua da Tapia-Perurenaren olerki bat, “Olerkiaren gaua”, alegia, Musset-en beste baten imitaziotzat jo duela kritikagilaren batek. Horrexetan aurkitzen du Jautarkolek berari leporaturikoa freskatzeko aukera:

(15) Mitxelaren hitzok dakarkigu gogora:

—Begira; gure ustez, beharrezkoa da kritika edozein herri ongi gobernatutan, harako Cervantesek aipatzen zuen lanbide hura bezala. Eta intsentsu-ontziari eragitea ez da kritika. Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea. Huts egin dezakeela? Noski, ba. Hutsik egin nahi ez duenak hobe du beste lanbide bati ekin. Kritikorik sonatuenek maiz egin izan dute kolpe huts, obrarik bikainenak txarretsiz eta txepelenak goraiatuz. Ez da, bada, mires-teko Egan-eko kritiko kaxkarren batek beste horrenbeste egitea.

—Zorrotza behar kritikak, hortaz?

—Ez zorrotza ez biguna: zuzena eta berdina. Ustez eta gogoz, zuzena eta berdina. Kritikko gogorregiak pekatu egiten baldin badu zuzenbidearen kontra, ez gutxiago bigunegiak. Ahoa betean eralgitzen baditu goresmenak, zer geldituko zaigu egiazki goragarrri den idazlan batezko iritzia azaldu behar dugunerako? Zer esan behar dugu orduan? «Goi-gorengo irakurgaia, bere bizikoa, aparta, txanbelina»? Zer balio dute hitzetik hortzera barreiatzen ari garen hutsaren hurrengo hitz merke horiek?». (1957, “Berriketan. Etxekoekin hizketan”, *Egan* 1-2, 3-8 [MIH, 167-169; MEIG I, 81-87]). (MEIG I: 83).

(16) 1932, “Euskal-Elertaren etorkizuna dala-ta...”, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1932, XIV (54), 11-13. or.; ?1931, “Mireio de Orix juzgado en Donostia”, *Euzkadi*, Bilbo, 1931-01-10; 1932, “Rumbos nuevos”, *Euzkadi*, Bilbo, 1932-01-07; 1932, “Poesía vasca. A propósito de «Aberri-oyuak»”, *El Día*, Donostia, 1932-04-13; 1932, “Biotz-begietan. Un gran poeta vasco”, *El Día*, Donostia, 1932-06-08; 1932, “Poesías vascas”, *El Día*, Donostia, 1932-09-16, esate baterako.

Cuando el que estas líneas escribe publicó su librito de poesías “Biozkadak”, no faltó algún crítico que en algunas de ellas viera reminiscencias y hasta imitaciones de varias composiciones francesas **de cuya existencia, dicho sea en honor a la verdad, el autor del libro no tenía ni la más remota idea.** Aducimos el hecho con el único fin de justificar a nuestro joven poeta [Tapia-Perurena, alegía] y hacer notar al mismo tiempo cuán fácil es errar en materias de crítica literaria y apreciaciones de arte. Es que nada tiene de extraño, antes es un hecho que se da con cierta frecuencia en todas las literaturas, el que un poeta coincida con otro del mismo o distinto idioma en el tema y hasta en la forma exterior de una o varias composiciones sin que por eso dejen éstas de ser originales y de singular valor artístico. Por otra parte, el haber un poeta recibido su educación literaria en los pechos de singulares poetas, el dejarse influir favorablemente de ellos y demostrar esa influencia, a manera de un bello reflejo, a través de sus modulaciones originales, es señal de capacidad artística e indicio de dotes meritorias de asimilación, que lejos de deshonrar el nombre de un poeta, le realzan y enaltecen. (Jautarkol, 1932f). (Beltz. gurea).

Hona, beraz, Jautarkolen ikusmoldea. Azpimarratu nahi nuke hauxe dela ahotan hartzen duen gai bakarra, alegía, ez hizkuntza-okerrak, ez neurri-kontuak... bezturiko beste alderdiez deus ere ez dioela. Pentsa al daiteke gai hauxe izan zela mindu edo egin zuena? Hau ez beste alderdi kritiko guztiak ontzat eman zituela?

Laburbilduz. Nola itxura daiteke Jautarkolek gerra aurretik zuen sona, nola ikusten zuen bestek Jautarkol?

Nik uste dut, oro har, Jautarkol bazela norbait garai hartan. Ospea irabazia zuten olerkiek, liburu itxuran argitara eman baino lehen ere, eta bilduman jendarteratzeak lehengo ospe hura areagotu besterik ez zuen egin. Egia da Lauaxeta eta Orixe —hau da, nik dakidala benetako kritika egin zuten ia bakarrak— elkarren besotik ibili zirela bere gustokoak ez ziren zenbait alderditan; metrikakontuetan, zortzikoarenean hobeki esan, batik bat. Egia da, halaber, bai bata bai besteak bestelako beztekorik ere aurkitu zutela Jautarkolen lanean: tristura gehiegizkoa, lamentazio-kutsua bizkaitarrak, hizkuntzaren alderdiak eta molde klasikoetatik urrutixko ibiltzea giputz- nafarrak (ez baitzait iruditzen Orixeren imitazio eta gainerantzekoak okertzat hartu behar direnik derrigorrean). Baina, berriz esan, bere zabalean hartuz, itxura guztien arabera, Jautarkolek euskal literaturari, euskal olerkigintzari bereziki, haize berria ekarri ziola esan daitekeelakoan nago. Honen adigarritzat ekar daitezke aipatu ditugun lanen ondoan, arestiko Eguía Ruizek (17), Aitzolek (18), Lizardik (19), Barrensorok (20) esa-

(17) “De literatura regional: *Euskeria*”, *Razón y Fe*, 1929, junio, 440-441. or.

(18) 1931, “Itzaufea”, *Eusko Olerkiak II*, Donostia, Euskaltzaleak, IV-XXI.

(19) 1930, “Euskal-Olerti-Jaia. Errenderiar jatorrei deia”, *Argia*, 1930-01-26; 1933, “Gure bideko mugarriak”, *Argia*, 1933-02-12.

(20) 1933, “Gure olerkariak”, *Yakintza*, 1933 (1), 21-25. or.

nak, besteak beste. Guztiek goratzen dute errenteriar olerkaria. Hona erakusgarriñoa:

El otro [Emeterio Arrese zen ahotan zuena], a quien no es posible omitir tampoco, es el fervoroso y culto presbítero D. Luis Jáuregui, cuya firma vemos con gusto en diversas revistas y periódicos. A buen seguro que, si en este poeta eclesiástico, el juego de la imaginación está, como suele, más limitado, y acaso menos cultivado el campo de imitación moderna de otras literaturas, tendrá en cambio oír adelantado un sentimiento tan profundo y sincero como la devoción que lo informa, y por otra parte el sentido de lo clásico y medido latirá en sus versos con tanta gracia vasca, como con gracia castellana lo supo infundir en los suyos el para mí inmortal D. Francisco Iturrigarria. Creo ha de ser un premio a la piedad de nuestra tierra vasca el que no le falte jamás un inspirado asceta de efusiones líricas vaciadas en una forma impecable. (Eguía Ruiz, 1929: 440-441).

Betegarriz edo nai izan ditugu beste bi olerkitxo ere txorta onetan bildu. Bata Jauregitar Koldobika, gure olerkari bikain-bikaiñenetakoak, bere omenaz egin zan Errenderiko Olerki Egunean, irakurri zuan olerki iaio ta arrigarria. (Aitzol, 1930b).

Euskal-erriko zorigaitzak, lege-zaarrari jaurtitako kateak, Euskeraren iza eta zabalkunde ergala, Arrese-Beitia, Arana-Goiri eta Jauregi'ri eresi negargarriak sortuasi dizkate, odola eusko zañetan sutuaz eta itxaropena biotzetan piztuaz. (Aitzol, 1930c).

Irudipenaz ugari, olde-asmoz apain jantziak Tapia-Perurena eta Jauregi bai-dagerzkigu. Minkuntz zintzoaz aberatsagoak dira ordea: liriko bikañenetakoak baizaizkigu biak. Irudipena eta minkuntza naasi, biotz-muñ iturri baretik ahapaldietara oparotsu, arro, nabarmen datorzkiote. Erromantiko ospatsuek izpiak ikututakoak ditugu bi olerkari oiek. Lizardi, labur, legor, adigaeiz izorra: Jakakortajarena, asmoz eta eraz errikoi: Jauregi eta Tapia-Perurena irudiz ugari minkuntzez bigun. (Aitzol, 1931).

Esan al-nezakio nik olerkari yori oni esan ez dioten ezer? Epailari go-rengoena goratu duten besteragiño gorasartu ete-nezake nik? Afese olerkariaren ondoren, Jauregi izan da oraingo olerkari gazte guzien bide-erakuzle. Jafai beza, bada, bidez irakasle aulkian.

Oraindaño egin ditunetan edefenetakoa ba-du, aufeko egun batean argitara digun olerkia: "Atof Maiteño". Orain soilduago, ifausiagi ta dezteratuago dator. Danerako du ala. (Agife'taf Toma, 1933: 25).

Garbi ikus daiteke Jauregik garai hartan zuen izena. Halaz ere, uste dut bestelakorik ere azpimarkatu behar dela Jauregiren gerra aurreko garrantzia bere benetako neurrian aditu ahal izateko.

Bistan da Jautarkol olerkaria dela Luis Jauregi euskaltzale sutsuaren alderdi guztietatik nabarmenena izan dena, eta seguru asko oraindik ere hala da. Bada, Jauregi olerkaria "patroi" edo "eskola" baten sortzaitzat, edo orde-

karirik agerikoentzat ere hartu behar da. Areago, berak nahita edo nahigabe, euskal olerkiaren joera jakin baten adierazgarritzat hartu zuten.

Garaiko iskanbiletan gehiegi sartu gabe, argi dezadan labur-labur esan berridudana.

Euskal literaturak, euskal olerkiak bereziki, nondik jo behar ote zuen zen liskarpuntua. Aitzol orduko aitapontekoak, 1933an herri-kutsuaren alde garbi egin zuen trabes, berrizaleen kaltetan (ez da ahantzi behar Lauaxeta, Lizardi eta beste bide honetan zebiltzala). Alegia, “herri xumeak” aditzeko moduko olerkiak, herri-lirikan, bertsolaritzan... oinarrituriko olerkiak bide ziren bultzatu beharrak “gutxientzako” moduko moldeak baztertuaz. Bai Euskaltzaleak elkartek 1933an plazaraturiko olerki-bildumaren hitzaurrean, bai urte bereko “Antziñako oituren piztutzea” (21) artikuluan, Aitzolek argi eta garbi adierazten du etorkizuneko bidea zein den. Eta hortxe du kokalekua Jauregi olerkiariak:

Alaz ere, adizkide zaizkidan Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Iturralde, Oxobi, Loidi, Zaitegi, Enbeita anaiak, Erkiaga'tar Eusebi, Gaztelu kaputxinoa, eta Onaindia karmeldarrai itztxo bat bederen zuzendu nai diotet. Idatzi dedana idatziaz zuek biotz-barruan izan zaituztet. Zuentzako bide berririk idekitzeko asmorik ez det izan. Ausarkeria litzake. Zuek guzia dezakezute eusko olerkia goi-gorengo maillara egazteko. Eusko-elertiaren itxaropenak zeok zerate. Olerki errikoa igartzera dator. Zuaitz zar ori eusko-eder-tasunaren gordeillu izan da. Idazleak eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena erriko kanta zarrak irakasten digute eusko gogoaren edertiari buruz yakin dezakeguna. Irakaspen ori biltzea besterik ez det egin. Arbasoen apaldi txorta zuei eskaintzen dizutet. Lore-kanta zaar oien lausaro auxe miaztu zazute. Antziñako bertsolarien esakun, irudi eta asmoak hausnartu itzazute. Orrela zuen irudimena aberastu eta olermena eusko kutsuz igurtzitzea lortuko dezute. Goi-arnasak irudimena irakin-arazi eta olermena arrotzen dizutenean mara-mara, naroki oso, sortzen dituzuten edozein oldozkun, ifiungo asmo, eta asmaketa arrigarriek ere eusko gogoari dagokion edertasunez yantzi araziko dizkizute gure ederkeria berezi onek. (Aitzol, 1933a).

Jauregi'k izenpetua ez balitz erriko olerkia zala usteko nuen. Alako erri kutsua daramate, ez kopla bakoitzak, olerki osoak baizik. Irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dana da. Eta onelako olerkiak eta onelako idazlanak bear ditugu. Irakurleak eta euskeltzaleak gure bertso zail eta idazlan eta artikulo ezin entenditzekoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz nazkatzen ari gera. Iñor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz errudina. Baña guztiok bide txarrak utzi eta bide onera jo dezagun. Bide txarra daramakigu olerkari eta idazle geienok. Oso bide txarra. Ongarri baño txarkeri geiango euskerari egiten diogu. Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea. Gure baitan sar gaitean eta erabaki egokiena gureganatu dezagun. (Aitzol, 1933d).

(21) Aitzolen lanen bilduman, “Oitura zarren piztutzea” paratu dute.

Gogoan behar da izan urte horretako Agate Deuna egunean Tolosan egin zuten sariketan, Jautarkolen kopia zaharrak gertatu zirela irabaztun eta horren ondoren idazten dituela Aitzolek arestikoak, Jautarkol eredutzat hartuz.

Horrexegatik aterako da plazara Lizardi “Gure bideko mugarriak” izeneko artikulua (22), idatzi zuen azkenaz, bide guztiak litezkeenak direla aldeztuz. Hor izendatzen ditu zarauztarrak berariaz euskal literaturan indarrean dauden “patroiak”: “Txirrita patroia”, “Muxika patroia” eta “Jauregi patroia”, euskal lirikoaren arabera, “errikoitasun gorritik bertso ikasietarako tartean iru mugarri” direnak. Badirudi, hortaz, Jauregi jartzen duela bertso ikasien adierazgarriaren lekuan.

Eta atal honekin bukatzeko besterik ere erantsi behar delakoan nago. Jautarkolen izen-omenak zirela bide “Euskaltzaleak” taldea antolatzen hasi zen euskal literaturarentzat, olerkigintzarentzat bereziki, eta euskararentzat berarentzat, hain ardurakoak izan ziren “Oleriti egunak”. Begira Aitzolen aitortza argia:

Don Luis de Jáuregi había publicado su primer tomo de poesías titulado “Biotzkadad” [sic]. Fue muy favorablemente acogido por la crítica. Se hizo, impensadamente, un favorable ambiente en favor de la poesía vasca. Coincidió por aquellos días la celebración del clásico día ferial donostiarra de Santo Tomás. Reunímonos un grupo de amigos euskeltzales. Entre ellos se hallaba Lizardi. En la conversación surgió la idea de organizar un homenaje a Jauregi, en Rentería. Para estimular la poesía vasca se acordó celebrar un certamen. El premio de honor sería algo simbólicamente vasco. Un ramo de roble en plata.

Al primer certamen del año 1930 acudió Lizardi con tres poesías, que figuran en “Biotz-begietan”. Eran éstas, “Paris’ko txolarrea”, “Agur” y “Otarxo utsa”. (Aitzol, 1933b: 139).

Beraz, gerraurreko Jautarkolek besteren begietan zuen itxura nolazpait osatu beharko banu, honako alderdiak azpimarkatuko nituzke. Oinarri-oinarririk hasita, bi sakoneko fedeko gizona begitantzen zait: erlijio-gizona eta euskaltzale sutsua (abertzalea ere gehi dezakegu lasai asko berak aitortua baitu bere burua Sabinoren jarraitzailetzat (1932a)). Alderdiok uztarturik ulertu behar dira, nik uste, munduratuak. Bai idazlanetan (olerkietan bereziki) bai bestelako zereginetan (euskal festak, elebitasunaren aldeko mitinak eta antolatzen...) (23), bere fede bikoitz horren errainuek bustitzen dute bere jarduna.

Jautarkolen *Biozkadak* lanak sekulako zurrumbiloa ekarriko du euskal letratan. Kritikak irakurri besterik ez dago Pizkunde garaiko euskal olerkigintzari arnasa berria eman ziola konturatzeko. Lauaxetak, Orixek, baina batez ere orduan norbait zen Aitzolek Jautarkolengan ikusten dute euskal olerkigintzaren

(22) 1933, “Gure bideko mugarriak”, *Argia*, 1933-02-12.

(23) Ikus, esate baterako, Orixek dakartzan lekukotasunak: “Los «Euskaltzaleak» en Zuñu”, *Euzkadi*, 1930-03-11), “Las fiestas de Errenderi”, *Euzkadi*, 1930-06-03.

mugarri gotor bat. Areago, ikusi dugun bezala, Tolosakoak Jautarkol hartzen du etorkizuneko euskal olerkiaren eredutzat.

Bestetik, lanaren argitaratzea da, hain justu, euskal olerki egunak ospatzen hasteko arrazoirik nagusiena.

Beste lanak, berriz, isilpean pasa ziren. Ez dut aurkitu ez poesia zehatzen gaineko kritika-lanik, ez hitz lauuko gainekoenik, orain arte aipatuak alde batera utzita.

Eta azkenik, zilegi bazait ura geure errotara ekartzea, beste honakoa ere esan nahi dut, Jauregiren sorterrria hizpidean hartuta: Jautarkolek erdietsi zuen gerra-bezperetako egun haietan Erreterria euskal literaturan, euskalgintzan zer-bat izatea. Lizardiren hitz batzuk ekarriko ditut honen erakusgarri:

Eukiz-gero, ordea, egokien jai ori [euskal olerkien jai] non egin erabakitzea, da leenengo eginbearra. Ta, orixe ausnarka darabildala, etzait gogoratzen ERRENDERI baño toki oberik. Gogotik ari dira orain eslariak, ta zuzenki, Jauregi'tar K. olerkaria aipatzen, ta Jauregi guziok dakizutenez, errederiarra da (...) Baña Errenderi'k badirudi olerkari-sorleku berezia dala, ezpaititugu, nik uste, biziak bakarrik gogoratu bear. Ta zenduengana, illengana jo ezkerro, or beste olerkari bi, ta urrezko, errederiar: Eltzo ta Errenderi Aba, ta zaarra-goen artean, or Xenpelar... Beraz, Euskal-Oleri-Jaia egin bearra ba-da: ta Errenderi'k badu agertokirik jatorrena... errederiarrok dezute izpidea. (Lizardi, 1930).

Gerratearen gau luze eta beltza pasa eta gero, 1951 arte ez du Jautarkolek deus argitaratzen euskaraz (24) (ez dugu ahantzi behar ez zela gerran garaile atera zirenen aldekoa). Baina urte horretatik aurrera plazaratutako lanen gainekoetan sartu baino lehen, hobe da bere lanik sonatuenaren aztarrenari segitzea.

Jautarkolek, zoritxarrez, ez zuen *Biozkadaken* bigarren argitaraldia kalean ikusteko parada izan, orduko hila baitzen.

Bi kritika moduko lanen lekukotasuna daukagu: lehengo hitzaurregile berarena, bata, eta On Manuel Lekuonak Erreterrian 1975eko azaroan, argitaratze berria zela medio, egin zuen hitzaldia, bestea (25).

(24) Eta erdaraz ere, apenas. Nik aurkitutakoaren arabera lan bat (erdaraz eta hitz lauz) besterik ez zuelako urte hori baino lehen argitaratu (1943, "Nuestra Patrona. La gran Santa del Nuevo Testamento", *Rentería* (1943), 25-26. or.). Lehen argitaratutako batzuk bai, berriz plazaratu ziren, hala nola, 1942an "Malentxu" eta "Mater Dolorosa", eta 1948an "Maite-opari" *Euzko Deyan*; 1946an "Maitasun kondairatxo" eta "Barren-Izketa" *Rentería* urtekarian (gaztelaniazko itzulpena aldamenean zutela). Baina, berriz esan, isilunea da nagusi 1951n "Eguzkia iya illean" *Euzko Deyan* argitara eman arte.

(25) 1975, "Jautarkolen «Biozkadak». Bigarren argitalpena. Itzaldi", 1987, *Idaz-lan guztiak*. 11. Azken urratsak, Tolosa, Kardaberaz bilduma 32, 341-346. or.

Lehen esan bezala, Juan Mari Lekuonarena erantsi behar zaizkie hauei.

Damaso Intzak eransten duen gauza bakarra da bitarte honetan Jautarkolek beste olerki batzuk idatzi dituela eta baduela aski gai beste liburu bat osatzeko, eta, hori ez ezik, kaleratzeko asmotan ere badabilela (26).

Lekuona zaharrak bere hitzaldian beste errenteriar sonatuen artean jartzen du Jautarkol: Xenpelar eta Juan Krutz Zapiirain bertsolariak, “Errenderi Aba”, Eltzo (jaiotzez astigarratarra baina bizitzaz herriko semetzat jotzen duena) olerkariak... Hauek guztiek, Jautarkolekin batean, Errenteria “ondratzen” dute.

Jautarkol olerkaria Bidasoaz honanzko bere garaikoentzat “aurkiuntza” izan omen zen, bide-auslea, euskal poesian —euskal lirikan zehazkiago— bide berriak urratzen hasi zena, Orixeren bide klasiko segurutik saihestu zena. Lehen argitaraldi hark sekulako harrera ona izan omen zuen (27).

Olerkien muina hizpidean duenean honakoak darabiltza oiartzuarrak: “liriko-lirikoa”, “bat ere ez epika-turut-otsik”, “dana lore, dana xamur”, “pentsakera goxo”, “bertso-neurria aberats”, “rima txukun”, “izkuntza errex”, “edo zeñek xurgatzeko ur garbi”, “geienetan txurrit labor”...

Erromantikoen-otina aurkitzen dio Jautarkoli, baina aho-gozo hori bere gisakoa du:

Bañan ez Becker bat bezain negarti, ez Espronceda bat bezain marmol-tallatu, ez Gabriel y Galán bezain liriko bir-esale. Orduan nik neretzako, Jautarkol' en bideari —Verdaguer' ez gañera— Selgas baten bidea erizten nion: lore-bide, bañan ez lore larros, lore bioltxo baizik, bioltxo apal, ixil, usai-goxo. Olerki-ixuri-leun, korapillorik gabeko ari-albiñu. Pentsamen sakonik ez. Zartada bortitzik ere ez. Irudimen goxo, dana biotz: biozkadak, liburuaren izenak berak dion bezela: *Biozkadak*. (Lekuona, 1975: 343).

Bistan da, beraz, zein eragin edo antz ikusten dituen On Manuelek Jaurigan: Verdaguer eta Selgas bereziki. Halaz guztiz, Selgas-en eraginpekotzat daukan bati, nik bederen, Bécquer-en usaina dariola deritzat, “poesía eres tú” amaia duen sonatuarena, alegia:

Aingerutxoa zer dan diozu?
Enetxu! ori galdera!
Aingerutxoa, ene kutuna,
aingerutxoa zu zera.

(26) “Oraingoz, Biozkadak dakazkienaz goza zaitezte, baño aren olerki guziak liburu batean al dan lasterrena arkitzeko ustean”. (Intza, 1975). Kaputxinoen artxibozainekin hitz egin dut Intzaren paperetan horren arrastorik ba ote zegoen galdetzeko, baina ez omen dute halakorik aurkitu.

Onaindiak dakarrenaren berririk ere ez dut, saiatu naizen arren:

“Zerrenda onezaz gañi, il aurretxoan, bere olerki-bilduma bat burutzen ari zan; neri esan zidanez, laster irarkolara eramateko zeukan. Nun ote dugu gaur bilduma ori? Aita Intza'k beretik, idatzi didanez, bukatua du aren olerki guztien sorta, ta askorik luzatu gabe irarkolara eramateko asmotan dago”. (Onaindia, 1976: 257).

(27) “Kizkitzak” (E. Arantzadik, alegia) oso abegi beroa egin omen zion *Euzkadi* egunkarian. Ez du Lekuonak, zoritxarrez, beste daturik ematen eta ezin aurkitu izan dut artikulu hau, lehen esan bezala.

Bestetik, Comillas-ko unibertsitatea ikusten du Lekuonak Jautarkolen eta besteren mintegi eta hazitoki erabakigarria. Han ikasiak, Orixeren gidaritzapean barrendu eta euskaraz ematea hartu zuen xede errenteriarak. Aztertzea litzateke, apika, ikasleku horren itzala euskal literaturan zenbateraino hedatu zen.

Biozkadaken gainekoak alde batera utzi eta gainerantzeko Jautarkolen lanen kritika-iruzkinetara pasata, beste bi lanen kontu eman behar da. 1958koak dira Koldo Mitxelena errenteriarak eta “Zeletak” (Jon Garmendiak), *Xenpelar bertsolaria. Bizitza ta bertsoak*, Itxaropenak argitara emandakoaren gaineko kritika antzekoak. Lehena *Eganen* (28), bestea *Euzko-Gogoan* (29).

Mitxelenari begietan ematen dio Jautarkol bezalako olerkari batek nolatan paratu zituen begiak bertsolari batengan; are harrigarriagoa egiten zaio gerra aurrean egin izana (30), orduan —gero ez bezala—, haizea ez baitzen oso bertsolaritzaren eta herri-usaineko moldeen aldekoa.

Bat dator Mitxelena saiakeragilearekin Xenpelar goi mailakotzat hartzean; ezbaian jartzen du, halaz guztiz, Jautarkolek Xenpelarri axtiatzen dion balizko etorkizuna.

Olerkari gain-gainekoa izango omen zen Xenpelar, egileak dioenez, eskolarik izan balu. Olerkaria, ez dakit. Beste zerbait izango genuen agian: Quevedoren tankerako zain eta hezurra besterik ez zuen prosalaria. (1958, *MEIG II*: 107).

Baina benetako kritika beste bide batekoa da. Jautarkolek oker (edo Mitxelenak hala joen) letraldatutakoak zuzenduta itzultzen dizkio. Mitxelenak berak aitortzen du, guztiarekin ere, ez diotela ezer kentzen Jauregiren “liburu ederrari”; areago, uste du sekulako mesedea egin duela Jautarkolek hartu duen lan honen bitartez. Hortaz, badirudi hutsen kontu-emate xeheak, buruen buruenik, Mitxelenaren arreta bereganatu izana erakusten duela.

Zeletak Jauregi apaizaren lana “biozkoi” eta “atseginkortzat” dauka, hitz lauz zein hitz neurtuz. Mintzagai duenaz —Xenpelarren gainekoaz—, berriz, “gozo” da aldamenen paratzen dion izenondoa. Irakurleak zaletzeko moduko lana omen da, euskara herrikoi eta ulerterrazean mamitu baitu bere herrikidea- ren berria. Xenpelarren bertsoen erakusgarriño bat eskaini ondoren, bukatzeko,

(28) MITXELENA, K.: “*Xenpelar bertsolaria bizitza ta bertsoak*, Jauregi’tar Luis («Jautarkol»), «Kuliska sorta», Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958”, *Egan* 3-6, 240. or. [*MEIG II*, 106-108. or.].

(29) “Zeleta”, “Idazti berriak. Jautarkol, *Xenpelar*”, *Euzko-Gogoa*, 1958, 5-6 (iraila-gabonila), 696-701. or. [Berbera da, *Euzko-Gogoa*, 1959, 3-6 (epaila-garagarri), 281-286. or.].

(30) Gogoan behar da izan, liburu honen lehengai gerra aurretik oratua zuela Jautarkolek: “Bertsolari nor zaigun: Xenpelar ereduz”, *Yakintza*, 1935, [III], (13), 331-339, (18), 407-413. or.; eta hitzaldiak ere egin omen zituen gai bera mintzagai hartuz: “Entre 1929-36 dio varias conferencias en euskera sobre el bertsolari Xenpelar, sobre el pasado y el porvenir de la Literatura Vasca y sobre la obra del poeta «Loramendi»”, (Añamendi: 264).

lanerako gonbitea egiten dio Jautarkoli: ea zergatik ez duen, Xenpelarrekin egin antzera, Enbeitza eta Otañoren bertso ederrez hornitutako liburua egiten.

Honaino, bada, Jautarkolen lanek argitara ahala izan zuten harrera.

2. HILONDOKOAK. OMENALDI MODUKOAK

Hasieran esan bezala, beste multzo bat osatzen dute apaiz erreteriarra hil zenean edo horren kariatz omenaldi gisa argitaratu ziren lanek, azken hauetako gehienak 1971ko Erretereriako *Oarso* urtekarian bilduak (31).

Lan hauetatik guztietatik, lantzak eta alde batera utzi eta ideiarik garrantzizkoenak besterik ez ditut ekarriko.

Los Santosek uste du Jauregi, Eltzo (José de Elzo Azpiazu) eta Jose Ramon Astibiarekin ("Errederi Aba") batean aztertu beharko litzatekeela.

Lekuona zaharrak, berriz, Jautarkolen alderdi zuzpertzalea azpimarkatzen du, gero etorriko ziren gizaldien esnatzaile izatea.

Leonardo Urteagak ere, euskal poesia irauli zuen lehenengotzat dauka. Bécquer aipatzen du Jautarkolen erredutzat.

Nemesio Etxaniz Aitzolen eta Jautarkolen arteko adiskidetasunaz mintzatzeko; Aitzol izan omen zen Jautarkoli izenik handiena eman ziona.

Leiz (Felipe Lizaso) ohartzen da idazten duen garaian (1971) ez dela, beharbada, Jautarkolen olerkigintza egunean dauden joeretan aise kabitzekoa; geroa kontra samar duela, alegia, ez baitu "inor sumintzen, besteren malkoak saminki jaso arren", "erreza, atsegina, herrikoa" baita. Hementxe ikus daiteke, nire ustez, urte batzuetan izan duen isilunearen arrazoia. Geroko belaunaldiak, apika, zaharkituxea edo harrapatzea.

3. LITERATURAREN HISTORIAK. IKERLANAK

Goazen orain, bada, literaturaren historietara, ikerlanetara zer iragazi den, denboraren galbaheak irintzat zer eta zahitzat zer bereizi duen, Jautarkolen az-

(31) LOS SANTOS BARRENECHEA, E., 1971: "Una triste fecha", *La Voz de España* (?), 12-02-1971; "Añarbe", 1971, "«Jautarkol» (G.B.)", *Oarso*, 82-83. or.; "Leiz", 1971, "Jautarkol Olerkaria", *Oarso*, 62-63. or.; ARTECHE, J. de, 1947: "El poeta de Machinventa", *Caminando*, Zarautz, Itxaropena, 57-61 [*Oarso*, 1971, 34-35. or.]; (eusk.) Etxaide, *Egan*, 1954 (1), 13-15. or.; LEKUONA, M., 1971: "Luis Jauregi «Jautarkol», olerkari erreteriarra", *Oarso*, 10. or.; ETXANIZ, N., 1971: "Jauregi'tar Luis apaiz jauna «Jautarkol» joan zaigu", *Zeruko Argia*, 415. zk., 1971-02-14, 7. or.; SAN MARTIN, J.: 1972, "Hil berriak: Jose Luis Jauregi Etxenagusia (1896-1971)", *Euskera*, 1972, XVII, 291. or.; URTEAGA, L., 1973: "Un gran poeta vasco: Luis de Jáuregui", *La Voz de España*, 9-08-1973.

Eta, jakina, geroago argitara eman diren 1996ko *Oarso* aldizkariak ere bai. Ikus bibliografia.

tarrenak non dauden ikustera. Berriz ere, biografia edo biografia-bibliografia hutsak alde batera utziko ditut eta batik bat alderdi kritikoari helduko diot (32).

1921ekoa da Evaristo Bozas Urrutiaren *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*, Erreenteriari buruzko pasadizo-, istorio- eta jakingarri-bilduma. Lehen argitaraldian, bertsolarien eta letretako jendearen artean aipatzen du Jauregi jaunna. Poetak bidali dizkion hamaika olerkitatik batzuk daramatza liburura toki-falta dela medio. Hizkeraren gaineko oharra besterik ez du egiten Bozas Urrutiak: euskara zail samarra omen darabil, baina ez ulertezina.

Koldo Mitxelena hitzaurreak daramatzen 1976ko argitaraldi elebidu-nean, berriz, Rodolfo Bozas Urrutia egilearen semeak, (hitzaurregilearen laguntzaz?) euskarara aldatzeaz gain, oin-ohar aberasgarriez hornitzen du jatorrizko liburua. Jautarkoli dagokion oharrean, oso bibliografia ugari eta lagungarria eransten du, bai Jautarkolek egina, bai Jautarkolen gainekoa.

Santi Onaindia ere ekarri behar dela uste dut. Batez ere bere *Mila euskal olerki eder* lanak bere garaian (1954koa da lehen argitaraldia) izan zuen arrakasta eta zabalkundeagatik. Bada, Jautarkolen bizitzaz zertzelada batzuk eman ondoren, bere hamar poesia (Sarasolak ahotan hartuko duen “Baserrira itzulpena” barne) dakartza. Antologia modukorako aukeratua izanak adierazten du Onaindiarentzat Jautarkolen lanak bazueta meriturik.

Karmeldarrak, *Euskal literaturan* ere (1975, 1976) sartzen du. Poesia ulerterraza omen da; bertsolarien eta poeta ilunzaleen artekoa. Barrena hustutzen omen du poetak bere lanetan.

Koldo Mitxelena zenbait lanetan Jautarkol eta Jautarkolen garai-giroetako poesia hartzen ditu ahotan. Hona Mitxelena kritikagileak adieraziak:

Por fortuna, puedo terminar esta enumeración [Erreenteriako euskal literaturgileena] con el nombre de uno de los maestros de la poesía en lengua vasca. Don Luis de Jáuregui, varias veces mencionado, sueña ahora en Urrestilla el mismo sueño puro y bello que antes soñó en Alzo (...) Ya no lo sueña, sin embargo, en voz alta (33), y son muchos los que le echan de menos. Yo le hablaría de un niño enfermo [Koldo Mitxelena bera, alegia] que aprendió de él, en las páginas de “Zeruko Argia” —y es una de las cosas más importantes que ha aprendido en su vida—, a reconocer claramente la “canción interior”, la “canción vasca” que sentía sonar confusamente dentro de sí. Y hay otros niños, sanos o enfermos, hay jóvenes y personas mayores, que esperan ahora, quizá sin saberlo, su ayuda. (Michelena, 1952: 42).

Sagartazutar Klaudi, gure barrutian *Satarka*, bere aldiko gizona da: nola ez da izango? Hitzaurrean Lekuona jaunak ederki dioen bezala, beste zenbait

(32) Beste nonbait esana dudana bezala (1996a), atentzioa ematen du zein ardura gutxiarekin eman diren Jautarkolen gaineko datoak: baten batek izena aldatu dio, Luis Ramón bataio-agirian dena Jose Luis bilakatu, sorteguna ekainaren 21etik 19ra pasatzea behin eta birritan errepikatzen den akatsa da; *Biozkadaken* argitaraurtea, 1929 alegia, beti ez da ongi ematen: 1928, 1930...

(33) Ikus 24. oin-oharra.

olerkarirenarekin lotua agertzen zaigu Sagartzazuren izena: Eltzo, Zubigar eta Jauregirenarekin, Beterri aldekoak besterik ez aipatzeko. Aspaldi ixilarazi zuen heriotzak, zorigaitzean, batzuen mintzoa, behar genuen baino askozaz lehenago. Satarka eta Jauregiren etorria ez da, ordea, agortu, euskal letren onerako.

Gipuzkoako euskal poesiaren gorabeherak aztertzeke nerea baino jakinduri mardulagoa nahi litzateke. Halaz guztiz, ez da noski okerregi esana izan-go aipatu ditudan olerkariak, beste gehiago lagun dituztela, poesia horrenaldi eta era baten ezaugarri gailenak direla: gero, 1930etik edo hasita, Orixek, Lizardik, Lauaxetak eta zabaldu zituzten molde berrien aurrekoarena, alegia. Poesia txukun-apaina, baina herrikoia eta errax antzekoa; barrenkoia eta goibel-ixurikoa. “Intza begietan” eta malkoa bihotzean. Sugarra, harrimena edo poz axolakabea baino nahiago zuten, izan ere, negar xamur ixila.

Ez dakit zer esan behar duen poesi mota honezaz egun edo biharko kritikak. Nik behintzat ezin dezaket gai honetan kritikarik egin. Hau baita haurretan, besterik bazen ere ez nekienean, ezagutu nuen; hau, euskaldun guztiok, baita zekenenek ere, bihotzean gorderik daukagun xoko minbera horretaraino sartu zitzaidana. Geroztik irakurri dut hoberik eta goragorik, baina ez dut bestetan sumatu ustekabea hartu ninduen haurtzaroko ikara berri haren bizia. (Mixelena, 1958, *MEIG II*: 102).

En el segundo y tercer decenio de este siglo pueden citarse entre nosotros, pasando por alto a muchos otros, los nombres de Emeterio Arrese, Elzo, Pedro de Embeita, Luis de Jáuregui, Claudio Sagarzazu. Se trata en general de poesía fácil, postromántica, de tono ligeramente elegíaco. No están aún lejanos los días en que Menéndez Pelayo pudo hablar, no sin razón, de la “honrada poesía vascongada”. (Mixelena, 1960, 1988: 147-148).

Azkeneko bietan, Jauregi da guretzat ezagunena, eta ez geroagokoa delako bakarrik, geurotako askok tratatua. Euskal literaturan Jauregi izan da batipat —joeraz, hizkeraz, neurriz, ez gaiei buruz— giro berrien aitzingidari. “Euskaltzaleak”-en atarian ageri zaizkigu bere *Biozkadak*, “Aitzol”-en aldamenean. Comillas-en elkarrekin gertatu zirelako edo, Jauregi izan omen zen Ariztimuñoren kuttuna, baita Lizardi eta Orixe agertu ondoren ere. (Mixelena, 1976, *MEIG IX*: 44).

[Lizardiren poesia] No era la típica efusión lírico-sentimental de “Biozkadak”; aquello era otra cosa. (Ibarzabal, 1977: 56).

Zer pentsarazten didate Mixelenaren iritziok? Uste dut badutela bere mami. Batetik, Mixelenak Jautarkol poesiaren gailurrean jarriko ez balu ere, “bere” sentitzen du, alegia, kritikagintzaren hoztasunetik begiratuta, “postromántico”, “fácil” eta antzeko izenondoak alboratu arren, bihotzetik begiratuta, ezin ezkuta dezake gisa horretako poesia, hain zuzen ere, izan zela zimiko egin zion lehena.

Bestetik, Lekuona zaharrak ere ikusi bezala, aztertzekeo litzatekeen beste zerbait ere eranstean du: Aitzolen eta Jautarkolen arteko adiskidetasuna. Hagitz garrantzizkoa, nik uste, Aitzolek garai hartan zuen eskua kontuan hartuz gero.

Azkenik, gogoan hartzekoa da Mitxelena bereizten duela Jauregiren “aitzindaritzan” hizkerari, joerari, neurriari dihoakiona eta gaiaren gainekoa. Pentsa al daiteke gaiaren alderdi hori dela, hain zuzen ere, bai Mitxelena bai ondoko belaunaldiak gutxien erakarri dituen alderdia?

Ibon Sarasolak bi euskal literaturaren historia eginak ditu, bata euskaraz (1971), bestea gaztelaniaz (1976).

Iruditzen zait aldea dagoela bi lanen artean.

Ez dakit orain ere gaztaroko lanean agertzen duen iritzi berari eutsiko liokeen, baina 1971n, euskal aldaera egin zuen giroan, idatziari begiratuta batek ateratzen duen Jautarkolen eta garai hartako poesiaren gaineko iritzia, egia esan, ez da irakurtzeko irrika biztuko diona:

“estilo romantiko berant eta dekadentearen segida”, “bertsolari molderekin nahasturik, Espainiako bigarren edo hirugarren mailako poeta ruralisten kutsua ager-arazitzen du [poesiak]”. (Sarasola, 1971: 118).

Literaturaren kritikagileak oso begi onez ikusten ez duen “nekazarizale-tasunaren” adierazgarritzat dauka, besteak beste, Jautarkolen “Baserrira itzulpena”. Klerikalismoak (34) kutsatutako poesia da.

Handik bost urtera argitara emandako erdal lanean, berriz, bestela ikusten duela ematen du, edo gutienez, bestela aurkezten du (35).

Jautarkol kokatzen du benetako lehen euskal literatura-belaunaldiaren aitzindari. Aitzolen gidaritzapean ernatuko den belaunaldi horrek euskal literaturaren historian lehen aldiz hizkera poetiko berriazkoa eta berria sortu nahiko du, euskal literaturgiletzat joko dute bere burua... Modu honetan euskal literaturaren historia osoan zehar ezagutu ez den loraldia izango da. Eta Jautarkol dugu giro berrien aurrenesku.

Luis Mari Mujikak “línea de poesía popularista bertsolarizante y postromanticista” (1979: 391) alboratzen dio *Biozkadak* lanari. Jautarkol sartzen du Arrese Beitia eta Sagarzazurekin batean “poesía híbrida (semi-culta/semi-popular)” deitzen duen soroan.

Gazteagoetara pasaz, Josu Landaren *Gerraondoko poesiaren historia* (1983) hartuta, Jautarkol jotzen du “Olerti Egunen” “kritiko, komentaria edo

(34) “Euskal literaturako Euskal Herri xipi eta mugatu honetan, eta euskal literaturan bertan, klerikalismoa azaltzen da nagusi. Iragan diren denborataraz ezin daitekeela itzul argi ikusten du eta domeinatzen duen alorra ahal duen indar guztiaz begiratuko du, honetarako bere egintza literaturara zabalduz. Klerikalismoak kutsatu duen ideologia poesiara, nobelara eta teatrorara hedatuko da. Harentzat euskera idea gaiztoen aurka aldatzen [sic] den hesi egokia eta Jainkoaren lege sainduaren eta ohitura zahar beneragarriak zaintzen dituen gaztelu finkoa da; euskal baserri zuriak, mendi eta zelai ederrak, euskera hura gordetzen duten gizon zintzoen bizilekua”. (Sarasola, 1971: 60).

Ez du justu hemen Jautarkolen izenik aipatzen, baina...

(35) Euskal eta erdal lanen balizko hartzaileen izaera bestelakoek horretaratua?

animadorearen papera” egiten zutenen artekotzat, Aitzol eta Orixerekin batean. Eta nola ikusten du, bereziki, Aitzolen eta Jautarkolen(?) zeregina?

Jautarkol berariaz aipatzen ez badu ere, testuinguruari begira hor sartu behar dela dirudi:

Hasteko, esan dezakegu urteen buruan euskal literaturaren kritiko ofiziala bilakatu zela Orixe. Norbaitek esango du beharbada Aitzolek edo Jautarkolek ere paper hori bete zutela, eta hortxe dago nire eritziz gakoa Orixe iritsi zuen arrakasta argitzeko orduan. Orixeren iritziak entzuten hasi ziren arte, komentariak eta laudoriogileak baino ez zen euskal literaturan: Euskadi aurrera ateratzeko, euskal literatura bultzatu beharra zegoen, eta ondorio garbiena bezala argi zeukaten guztiok kaleratutako guztia aupatu behar zela. Eta jokabide horren barnean koka genezake Aitzol baten kasua, esate batera. Joera orokor horren aurrean, genio bat sortu zen —Orixe alegia—. (Landa, 1983: 14).

Harrigarriro, ez du Jautarkolen olerkigintza epaitzen, kritikagintza baizik. Bat nator Landarekin egiten duen Jautarkolen alderdi ezkutu hori agerira ekartzearekin; ez horrenbeste, ordea, Orixeren aurreko kritikagintzaz esaten dituenekin. Bai Aitzolen, bai Jautarkolen kritika-lanak irakur dezana konturatuko da ez dagoela inondik ere esaterik “guztia aupatu” beste zereginik ez zutela izan. Urrutirago gabe, garai hartako poesia erraza/zaila e.a. eztabaida sutsua, zer? Eta Lauaxetaren *Bide barridak* edo Zubimendiren *Aberri-oyuak* edo Tapia-Perurenaren edo Lizardiren poesia-moldeen edo beste hamaikaren gainean Jautarkolek egin zituen lanak?

Azkenik, bi ikerlanen berri eman behar delakoan nago. Nork bere ikuspegiaren arabera, eta Jautarkol aztergunea ez izan arren, erreneriarraren irudia pixkan-pixkan nola joan daitekeen osatzen erakusteko lekuko aproposak dira, nire ustez. Biak hartuko nituzke euskal ikerketa hartzen ari den izaera berriaren seinaleztat: orobatzei ihesi, euskarri sendorik gabeko iritziak saihestu eta garaiko paperetara jo, poliki azterkatu eta bere testuinguruan (hemengoan eta kanpokoan) aditu.

Paulo Iztueta, Orixezale aztertzailea eta zabaltzailea, dugu batetik; eta Jon Kortazar Lauaxetazale aztertzailea eta zabaltzailea, bestetik.

Iztuetak, soziologiaren ildotik, Jautarkol bere garaian kokatzen du. *Biozkadaken* atzean dagoen ikusmoldea, lanaren inguruan sortu ziren kritikak (Lauaxetak, Orixe eta Aitzolek nagusiki nola hartu zuten lana batez ere) eta beste azaltzen ditu. Eta besteak beste, honakoa dio:

Bertsolarietako mesprezu honek eraginda ekiten dio Manuel Lekuonak (...) ahozko literatura maila teorikoan berreskuratzeari. Ahozko literaturaren berreskurapen-tradizio honetan sartzen dut nik, Lauaxetaren *Arrats Beran* baino dexentez lehenago eta errebindikazio[sic]-titulu gehiagorekin sartu ere, Luis Jauregiren *Biozkadak* liburutxo. Eta puntu honetan urruntzen naiz Jon Kortazarren ikuspuntutik, agian garaiko testuinguru historikoa Lauaxetaren ira-

kurketara sobera hertsitzen duelako (36). Altzoko jaun errektoreari [sic] ez bait dio, nire ustez, dagokion lekurik ezagutzen. Hutsune hau, gainera, harena bakarrik ez, are orokorragoa delakoan nago. Nik ezin dut irakurri Aitzol, Jautarkol gabe, Orixe Lizardi gabe ezin gogoeman dudana bezala. (Iztueta, 1991: 664).

Iztueta Jautarkolen aldeztaille bilakatuak, Jauregi ikusten du orduko gazteen maisu. Areago, euskal poesiaren gaineko eztabaida sutsuko ikusmolde baten ordezkariatza dauka: poesia liriko errazarena, alegia.

Dena dela, imitzaile ala ez, L. Jauregi liburu honekin eskola berri baten ordezkari nagusi bihurtuko da gerraurrean. Eskola hau, gerora esplizituago Aitzolek errebendikatuko [sic] duen bezala, poesia erraza eta herritarren eskola da, jende askorengana heltzeko egokiagoztat jotzen duena. (Iztueta, 1991: 669).

Kortazarrek berriro argitarara eman duen lan batean (37) “Poesia kristaua” izeneko kapitulu batean Jautarkol eta Loramendi azterkatzen ditu, *Euzkerea* eta *Yakintza* aldizkarietan plazaratu zutenean batez ere oin hartuz.

Bizkaitarrak biak Europan zehar zebilen joera baten —herrikoitasuna eta poesia erlijiosoa batzeko ahaleginetan saiatu zen sinbolismo kristauaren— euskal ispilua ikusten du bi olerkariengan.

Jautarkolen olerkigintzan nolazpaiteko bilakera edo mugimendua ikusi uste du (hau da, nik dakidala alderdi hau aipatzen duen bakarra).

Biozkadakeko Jautarkolek bi ezaugarri omen ditu nagusi: Bécquer usaineko posterromantikotasuna, eta bertsogintza eta olerkigintza bereiziz, bigarrenaren lehena baino maila goragora eramatea.

Yakintzan argitaratzen duen Jautarkol geroagokoak, ordea, beste estilo bat omen du, nolazpait, beste poeta bat omen da. Lehengo zenbait ezaugarri eusten badie ere, joera aldatu du. Eta hemen Lizardiren eragina aipatzen du (“Udara arratsaldez”, 1936: 87).

Hiru ezaugarri nagusitan laburbiltzen du Kortazarrek Jautarkolen idazkera: 1) deskripzioaren nagusitasuna; 2) joera logikoa; 3) erritmoa.

Lehenean —kanpoko mundua barrengoari nagusitzean, alegia— batez ere joera erlijioso eta herrikoietan, Verdaguer-en eragina ikusten du Kortazarrek.

Bigarrenari dagokionez, joera logikoa bi mailatan ikusten du: maila semantikoan (poema irakurtzeko modu bakarra ezartzen dio irakurleari) eta egi-turaren mailan (poemak diseinu jakin baten arabera eginak).

(36) Pentsatzekoa da Kortazarren *Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga* “*Lauaxeta*” (1986, Bilbo, Desclée de Brouwer) duela gogoan.

(37) “*Euzkerea*” eta “*Yakintza*” aldizkarietako olerkigintza 1995, Bilbo, Labayru Ikastegia-Zomortzako Udala.

Erritmoaz, berriz, honixe deritzo alderdirik baliotsuena. Zortzikoa pixkan-pixkan uztean ikus omen daiteke bilakaeraren zantzua (38).

Non datza, hortaz, aldaketa?

Kortazarren ustez, *Yakintzako* Jautarkol sinbolistagoa da: herrikoitasuna nagusitzen zaio (hornigailu izatetik giltza izatera pasa da), Aitzolek nahi zuen bezala, eta subjektibitate-kutsua nabarmenagoa da. Azken alderdi hau dela-eta, Kortazarrek Lizardiren itzala ikusi uste du, kontzeptismoari ateak zabaldu dizkiolako (39), eta Orixerena, subjektibitatea lantzerakoan ere orden logikoari eusten diolako. Azken arrazoi honengatik batez ere, Kortazarrek ez du Jautarkol sinbolista erabatekotzat jotzen.

Lan honek agerira darama, nik uste, geroxeago ere esango dudan zerbait. Ez daukagula Jautarkolez lan berariazkorik, azterlan osorik, bere jardunaren luze-laburra, munduratuaren barrengo bilakaera, garaian izan zuen itzala, besteekin (hemengoekin eta kanpokoekin) izan zuen harremana... behar bezala argitzen digunik.

Honaino, beraz, Jautarkolen gainean han eta hemen eskuetara ahal izan dudana uzta.

Baina nire ustez, Jautarkolen aztarrena beste nonbait ere bilatu beharko litzateke, besterengan utzitako hatzean, arrastoan, batez ere. Horretxek erakutsiko bailiguke noraino hartu beharko genukeen batek baino gehiagok aitortu izan dion maisutza, bide-erakusle izatea. Aipatu besterik ez ditut egingo bidean atera zaizkidan batzuk: Aitzolek (1932), (1933c) eta Lafittek (1963) Loramendigan; Kortazarrek (1995) Lizardigan; San Martinek (1972a) Satarkarekin batean ikusten du euskal lirikaren bide-urratzean; Los Santosek Elzo eta Errenderi Abarekin lotu du... Baina puntu hau ere azterkizun dagoela iruditzen zait.

4. AZKENA

Bukatzeko zer esan? Ekarrri ditudanek, uste dut, zerbait garbi ispilatzeotan, hutsunea da, zerbaiten falta. Jautarkol oraingo belaunaldientzat arrotza da, baita bere sorterrian ere. Litekeena da oraingo joerak Jautarkolen ildokoak ez izatea; litekeena da bere idaztanka, gaiak bereziki, darien ideologia... oraingo

(38) Oroi Orixeren, eta batez ere Lauaxetaren kritikez.

Ez dakit Kortazar *erritmo* hitza erabiltzean Lauaxetaren bereizkuntzari estu lotzen zaion. Esana dugun bezala, Lauaxetak "erritmoa" eta "melodia" bereizten ditu, musikan bezala: gogokoa du Jautarkolen melodia; ez horrenbeste erritmoa, zortzikoaren erabilera dela medio, batez ere.

Baina, berriz esan, badirudi zortzikoaren erabilera lehen ere ez zela ugaria, J. M. Lekuonaren azterlanaren arabera. Hortaz, bilakaera, ala lehengo lepotik burua?

(39) Harrigarri samarra egiten zait, trinkotasuna baitzen, hain zuzen ere, Jautarkolek Lizardigan (baita Lizardi hil ondoko artikuluetan ere, hobeki esan, horietan bereziki) ikusten zuen bezeko alderdi bakarra, baina... literatura-kritikagileek dute hitza.

jendeak urrutixko (are kontra) sentitzea. Baina gustatu edo ez, ezagutarazteko erantzunkizuna dugu, besteak beste, orain ustela dena, bihar berritasunik berrirentzat har daitekeelako. Gure ardura da oraingo eta geroko euskaldunei Errenteriako Luis Jauregi Etxenagusia, "Jautarkol" ezagutzeko, ikertzeko eta epaitzeko lanabesak eskueran uztea. Orixe, Lizardi, Aitzol... irispidean dauz-kagu, lehen ez bezala, bere lan guztiak bilduta eskueran dauzkagu-eta; lan monografikoak ere pixkan-pixkan ari dira kaleratzen. Ez dut uste zentzugabekeria denik galdetzea ea Jautarkolek ez ote duen horrenbeste merezi. Oraindik ere argikizun dauden puntu asko argitzeko balioko liguke; areago, benetan uste dut euskal letretan urrezko arotzat daukaten Pizkunde garaia ezin bere betean adituko dugula Jautarkol begi aurrean izan ezean. Jautarkoli ez ezik, euskal literaturari, gure historiari (bere handian eta ttikian), eta buruen-buruenik geure buruari, ez genieke mesede kaxkarra egingo! Omenaldia benetako balioaz betetzeko egokieran gaude.

BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J.M.: Ik. "Lizardi, X."

AGIRRE, T., 1933: "Gure olerkariak", *Yakintza*, 1933 (1), 21-25. or.

"AITZOL", 1930a: "Nuestros poetas", *El Pueblo Vasco*, Donostia, 1930-01-12.

—, 1930b: "Itzaufea", *Eusko Olerkiak I*, Donostia, Euskaltzaleak, (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1930c: "Itzaufea", *Otaño'tar Pedro Mari. Olerki onenak-alkar*, Donostia, Iñaki Deunaren Irarkola (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1931: "Itzaufea", *Eusko Olerkiak II*, Donostia, Euskaltzaleak (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1932: "Itzaufea", *Eusko Olerkiak III*, Donostia, Euskaltzaleak (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1933a: "Itzaufea", *Eusko Olerkiak IV*, Donostia, Euskaltzaleak (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1933b: "El poeta José María de Agirre «Xabier de Lizardi»", *Yakintza*, 1933, 3. z. (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1933c: "El poeta Juan de Arana. «Bedoña'tar Jokin»" ("Loramendi"), *Yakintza*, 1933, 4. z. (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 3. Literatura inguruan*, Donostia, Erein).

—, 1933d: "Antziñako oituren piztutzea", *El Día*, Donostia, 1933-02-5 (1986-1987, *Jose Ariztimuño "Aitzol". Idazlan guztiak 5. Euskal kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile (I)*, Donostia, Erein).

- , 1935: “Gaur Bedoña’n VI’garren EUSKO-OLERTI EGUNA”, *El Día*, 1935-06-3, 5. or.
- ALTUNA, J.: Ik. “Amilgain”.
- AMENABAR, J., 1983: *Euskal poesia kultoaren bilduma. 1880-1963*, Donostia, Elkar.
- “AMILGAIN”, 1929: “Idazti Bañijak. Biozkadak”, *Euzkerea*, 129 zk., 191. or.
- “AÑARBE”, 1971: “«Jautarkol» (G.B.)”, *Oarso*, 82-83. or.
- “ANDONI”, 1935: “Igandez Errenderi’n. Aita Astibia’reñ omenez eraturako jaiak ederto ospatu ziran”, *El Día*, Donostia, 1935-07-17. [Jautarkolen hitzaldia dakar].
- ARANTZADI, E.: Ik. “Kizkitza”.
- ARIZTIMUÑO, J.: Ik. “Aitzol”.
- ARTECHE, J. de, 1947: “El poeta de Machinventa”, *Caminando*, Zarautz, Itxaropena, 57-61 [*Oarso*, 1971, 34-35. or.; (eusk.) Etxaide, *Egan*, 1954 (1), 13-15. or.].
- AUÑAMENDI, “Luis de Jauregui (1896-1971)”: *Enciclopedia General Ilustrada “Auñamendi”*, “Literatura” III 500-507. or.
- BANDRES R., 1996: “Luis Jauregi «Jautarkol» euskal poeta errenteriarren mendeurrena”, *Oarso* (aldizkaria), 1996 (maiatza), 31. zk., 14. or.
- “BARRENSORO”: Ik. Agirre, T.
- BILBAO, J., 1970-1981: *Eusko bibliographia*, Donostia, Auñamendi.
- BOZAS URRUTIA, E., 1921: *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*, San Sebastián (1976, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Errenteria kondairan eta ipuin zaharretan*, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y publicaciones), 335-337. or.
- EGUIA RUIZ, C., 1929: “De literatura regional: *Euskeria*”, *Razón y Fe*, 1929, junio, 440-441. or.
- El Día*, 1935-06-4, “VI Euskal Olerti Eguna”, 2. or.
- Eguna*, 1987-06-18, “Jauregi’tar Koldobika (1896-1971)”, 25. or.
- Elhuyar, 1993: *Hiztegi Entziklopedikoa*, Usurbil, Elhuyar.
- ESTORNES: Ik. Auñamendi.
- ETXAIDE, J., 1954: “Matxinbenta’ko olerkaria”, *Egan*, 1954 (1), 13-15. or.
- ETXANIZ, N., 1971: “Jauregi’tar Luis apaiz jauna «Jautarkol» joan zaigu”, *Zeruko Argia*, 415. zk., 1971-02-14, 7. or.
- G.V., J., 1957: “Los renterianos y la literatura”, *Rentería*, 31. zk., 16. or.
- GARMENDIA, J.: Ik. “Zeleta”.
- GOÑI, J., 1996: “D. Luis Jauregi Etxenagusia, Sacerdote”, *Oarso*, 31. zk., 4-5. or.

- HARANBURU (ed.), 1985: *Diccionario enciclopédico del País Vasco*, San Sebastián, Haranburu.
- IBARZABAL, E., 1977: *Koldo Mitxelena*, Donostia, Erein.
- IBINAGABEITIA, A.: 1954, “Ipuiak (Jautarkol)”, *Euzko-gogoa*, 1954, 126. or.
- INZA, D., 1929: “Itzaufea”, Jautarkol, *Biozkadak*, Iruña, Neketako Ama-Birjiñaren Irarkola, V-XV.
- , 1975: “Bigarren argitaldiari hitzaurrea”, Jautarkol, *Biozkadak*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- IZTUETA, P., 1991: *Nikolas Ormaetxea “Orixe”. Idazlan guztiak (V). Orixe eta bere garaia*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
- JAUREGI, L.: Ik. “Jautarkol”.
- “JAUTARKOL”: *Egizko Edeñtasuna (ipuin luzea)*, Befmeo, Gaubeka’taf Bitor’en iraf-kola.
- , 1924: *Ipuiak*, Donostia, Loyolako Iñaki Deuna-ren irarkola, “Argia idaztiak” [19532, *Ipuiak*, Zarautz, Itxaropena, “Kuliska Sorta”, 4. zk.].
- , 1926: “Malentxu”, *Euzkadi* 14 (1926, 4322. zk., VIII-29), 1. or. [*Jaungoiko-Zale* 15 (1926, 283. zk.), 171. or.; *Biozkadak* (1929, 40-41. or.); *Euzko Deya-A* 4 (1942, 111. zk.), 9. or.].
- , 1929: *Biozkadak*, Iruña, Neketako Ama-Birjiñaren Irarkola [1975, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala].
- , 1930: “Bañen-Izketa”, *Euzkadi* 18 (1930, 5589. zk.), 5. or. [*Zeruko Argia* 13 (1931, 149. zk.), 69. or.; *Yakintza* 1 (1933, 2. zk.), 91. or.; *Rentería* (1946, 24. zk.), 23. or. (“Habla interior” itzulpenaz hornitua)].
- , 1931a: “Maitasun-kondairatxo”, *Eusko Olerkiak* 2 (1931), 106-111. or. [*Rentería* (1946, 24. zk.), 24. or. (aurreko biak “Historieta de amor” itzulpenaz hornituak); *Euzko Gogoa* 3 (1952, 5-6. zk.), 5. or.].
- , ?1931b: “Mireio de Orixe juzgado en Donostia”, *Euzkadi*, Bilbo, 1931-01-10.
- , 1932a: “Euskel-Elertiaren etorkizuna dala-ta...”, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1932, XIV (54), 11-13. or.
- , 1932b: “Rumbos nuevos”, *Euzkadi*, Bilbo, 1932-01-7.
- , 1932c: “Poesía vasca. A propósito de «Aberri-oyuak»”, *El Día*, Donostia, 1932-04-13.
- , 1932d: “Biotz-begietan. Un gran poeta vasco”, *El Día*, Donostia, 1932-06-8.
- , 1932e: “Poesías vascas”, *El Día*, Donostia, 1932-09-16.
- , 1932f: “Nuestros poetas”, *El Día*, Donostia, 1932-10-1.
- , 1935: “Maite-opari”, *Argia* 15 (1935, 739. zk.), 2. or. [*Euzkadi* 23 (1935, 7000. zk.), 12. or.; *El Día* (1935-06-3), 5. or.; *Yakintza* 3 (1935, 16. zk.), 257-259. or.];

- Ekin* 4 (1935, 152. zk.), 3. or.; *Euzko Deya-M* 5 (1948, 99. zk.), 3. or.; (100. zk.), [12]; *Eguna* 2 (1987, 177. zk.), 25. or.; *Oarso* (1996, 31. zk.), 160-161. or.]
- , 1936: “Udara afatsaldez”, *Yakintza* 4 (1936, 20. zk.), 87-89. or.
- , 1943: “Nuestra Patrona. La gran Santa del Nuevo Testamento”, *Rentería* (1943), 25-26. or.
- , 1951: “Eguzkia iya illean”, *Euzko Deya-M* 9 (1951, 130. zk.), [2].
- , 1952: “Joxepantoni’ren gora-bera illun eta alaiak”, *Egan*, 1952 (1), 25-32. or. [19532 *Ipuiak*en “Andre Joxepantoni” izenpean jaso, aurrekoaren aldaera berri-tua].
- , 1958: *Xenpelar Bertsolaria. Bizitza ta bertsoak*, Zarautz, Itxaropena, “Kuliska Sorta” 25-26. zk.
- “KIZKITZA”, ??: [*Biozkadaken* gainean], *Euzkadi*, Bilbo.
- KORTA, A.: Ik. “Añarbe”. “Andoni”?
- KORTAZAR, J., 1986: *Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga “Lauaxeta”*, Bilbo, Desclée de Brouwer.
- , 1995: “Euzkerea” eta “Yakintza” aldizkarietako olekigintza Bilbo, Labayru Ikas-tegia-Zornotzako Udala.
- , 1996: “Luis Jauregi «Jautarkol»”, *Deia* (igandeko gehigarria), 1996-07-16.
- LANDA, J., 1983: *Gerraondoko poesiaren historia*, Donostia, Elkar-AEK.
- LAFITTE, P., (P. Urkizuk paratua), 1990: *Euskal literaturaz*, “Klasikoak”, Donostia, Euskal Editoreen Elkarte (Erein).
- “LAUAXETA”, 1929a: “Divagaciones. *Biozkadak*”, *Euzkadi*, Bilbo, 1929-11-8.
- , 1929b: “Divagaciones. *Biozkadak*”, *Euzkadi*, Bilbo, 1929-11-16.
- , 1934: “Uafa”, *Euzkadi*, Bilbo, 1934-04-13.
- , 1935: “Uarra”, *Euzkadi*, Bilbo, 1935-09-3.
- LEKUONA, M., 1971: “Luis Jauregi «Jautarkol», olerkari errenteriarra”, *Oarso*, 10. or.
- , 1975: “Jautarkolen «Biozkadak». Bigarren argitalpena. Itzaldi”, 1987, *Idaz-lan guztiak*. 11. *Azken urratsak*, Tolosa, Kardaberaz bilduma 32, 341-346. or.
- “LEIZ”, 1971: “Jautarkol Olerkaria”, *Oarso*, 62-63. or.
- “LIZARDI, X.”, 1930: “Euskal-Olerti-Jaia. Errenderiar jatorrei deia”, *Argia*, 1930-01-26 (1987, *Kazetari-lanak*, Donostia, Erein, 295-296. or.).
- , 1933: “Gure bideko mugarriak”, *Argia*, 1933-02-12 (1987, *Kazetari-lanak*, Donostia, Erein, 401-404. or.).
- LIZASO, F.: Ik. “Leiz”.
- LOS SANTOS BARRENECHEA, E., 1971: “Una triste fecha”, *La Voz de España*, 12-02-1971.

- MADARIAGA, A., 1923: "Egizko edertasuna", *Aranzazu*, abuztua, 28. zk., 1923, 266. or.
- MENDIGUREN ELIZEGI, X., 1996: "Jautarkol Celaren euskaratzaile", *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-06-16, 24. or.
- MICHELENA, L., 1952: "Los renterianos y la literatura en lengua vasca", *Rentería*, 31. zk., 39. or.
- , 1960: *Historia de la literatura vasca*, Madrid, Minotauro [1988, Donostia, Erein].
- MITXELENA, K., 1958: "Xenpelar bertsolaria bizitza ta bertsoak, Jauregi'tar Luis («Jautarkol»), «Kuliska sorta», Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1958", *Egan* 3-6, 240. or. [Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak II, 106-108. or.].
- , 1958: "Intza begietan. Olerkiak (Poesías vascas con traducción castellana), Claudio Sagarzazu (Satarka), San Sebastián, Valverde", *Egan* 5-6, 105. or. [MEIG II, 102-103. or.].
- , 1976a: "Hitz bitan", E. Bozas Urrutia, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Errenteria kondairan eta ipuin zaharretan*, Donostia, 1976, XVIII-XXXI. [MEIG IX, 40-45. or.].
- MUJICA, L.M., 1979: *Historia de la literatura euskerika*, Donostia, Haranburu.
- OLASKOAGA, X., 1985: "Errenderi'ko bertsolari eta olerkari zaarrak", *Oarso*, 20. zk., 81. or.
- , 1996: "«Maite Opari»ren xeetasun batzuek", *Oarso*, 31. zk., 160-161. or.
- OLASO, J., 1929: "Biozkadak. Un libro de poesías del Sr. Jáuregui", *Rentería*, 12. zk., 50. or.
- ONAINDIA, S., 1954: *Mila euskal-olerki eder*, Itxaropena (19752, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca).
- , 1975: *Euskal literatura (IV)*, Bilbo, Etor.
- , 1977: *Euskal literatura (V), 1915-1940*, Bilbo, Etor.
- "ORIXE", 1930a: "Nuestros poetas. Suspiros del corazón (1)", *Euzkadi*, 1930-01-1 (1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 299-301. or.).
- , 1930b: "La métrica de «Biozkadak»", *Euzkadi*, 1930-01-3 (1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 301-303. or.).
- , 1930c: "La imitación en Jauregui", *Euzkadi*, 1930-01-21 (1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 303-305. or.).
- , 1930d: "Los «Euskaltzaleak» en Zumaia", *Euzkadi*, 1930-03-11 (1991a, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan guztiak (III). Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 305-308. or.).

- , 1930e: “Las fiestas de Errenderi”, *Euzkadi*, 1930-06-3 (1991a, *Nikolas Ormaetxea “Orixe”*. *Idazlan guztiak (III)*. *Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza, 308-312. or.).
- , 1991a: *Nikolas Ormaetxea “Orixe”*. *Idazlan guztiak (III)*. *Artikulu eta saiakerak*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
- , 1991b: *Nikolas Ormaetxea “Orixe”*. *Idazlan guztiak (V)*. *Orixe eta bere garaia*, Donostia, Etor-Eusko Jaurlaritza.
- ORMAETXEA, N.: Ik. “Orixe”.
- OTAEGI, L., 1994: *Lizardiren poetika Pizkundearen ingurumariaren argitan*, Donostia, Erein.
- , (par.), 1987: *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*, Donostia, Erein.
- PASCUAL, M.J. y SANZBERRO, L., 1996: “«Jautarkol» en la biblioteca de Rentería”, *Oarso*, 31. zk., 134-138. or.
- PEREZ GAZTELU, E., 1996a: “Jautarkol eta Lizardi: bi bide, asmo bat”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-06-25, 28. or.
- , 1996b: “Bi errenteriar egitasmogile (Jautarkolen oroimenez)”, *Oarso*, 31. zk., 43-44. or.
- SAN MARTIN, J., 1968: *Escritores euskéricos: catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- , 1972a: “Hil berriak: Klaudio Sagartzazu Sagartzazu (1895-1971)”, *Euskera*, 17. zk., 1972, 285. or.
- , 1972b: “Hil berriak: Jose Luis Jauregi Etxenagusia (1896-1971)”, *Euskera*, 17. zk., 1972, 291. or.
- , 1996: “J.L. Jauregi «Jautarkol» mendeurrenean”, *Oarso*, 31. zk., 82-84. or.
- SARASOLA, I., 1971: *Euskal literaturaren historia*, Donostia, Lur.
- , 1976: *Historia social de la literatura vasca*, Madrid, Akal.
- TORREALDAY, J.M., 1977: *Euskal idazleak gaur*, Oñati-Arantzazu, Jakin.
- UGALDE, M., 1996: “Mendeurrenaren eskakizunak”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-06-19, 30.or.
- URKIAGA, E.: Ik. “Lauaxeta”.
- URKIZU, P. (par.): Ik. Lafitte.
- URTEAGA, L., 1973: “Un gran poeta vasco: Luis de Jáuregui”, *La Voz de España*, 9-08-1973.
- VILLASANTE, L., 1961: *Historia de la literatura vasca*, Bilbao, Sendo (19792, Oñate, Ed. Franciscana Aránzazu).
- XX, 1927: “Hombres de Rentería (D. Miguel Aranguren, D. Cosme Echeverría, D. Ignacio Lecuona, D. Luis de Jáuregui)”, *Rentería*, 10. zk., 37. or.

XABIER, 1986: ["Errenderi'ko Madalen Deunaren elizatzxoan"], *Oarso*, 21. zk., 42. or.

——, 1996: "Jauregi'tar Koldobika «Jautarkol»", *Oarso*, 31. zk., 62-63. or.

ZABALETA, J. (zuz.), 1991-1994: *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, Lur.

"ZELETA", 1958: "Idazti berriak. Jautarkol, *Xenpelar*", *Euzko-Gogoa*, 1958, 5-6 (iraila-gabonila), 696-701. or. [*Euzko-Gogoa*, 1959, 3-6 (epaila-garagarrila), 281-286. or.].

Zeruko Argia, 1929: "Liburu berriak. *Biozkadak*", 128. zk.